

Ate birakarietako giltzak

Duda handiak nireak, beti, ene ikerketetan: handiagoak nahiko nituzke oraingoan, hauteskunde biiharmunean. Izan ere, egotzen ikerketak baikorrak direnean, hobe deritzot, badaezpada ere, guztiz ez sinesteari haiekin. Baina ezkorrek direnean, nahiago izanen nuke haiekin batere ez sinetsi.

Hedabideen ezinbertzeko bazka dira urgentziatzko analisiak, berauen eskaera batzuei edo bertzei luzatuz. Baina zer lortuko ote? Urgentziatzko analisiak ala larrialdietakoak? Pentsa: direnak direlakoak emaitzak, denenak guztira zein lehiakide bakoitzarenak, onak zein txarrak, azalpenak eman behar berehala; hots, urgentziatzko analisiak eman behar; eta batzuen analisiak, beti, larrialdietako analisiak dirudite, ebakidura-edo zirt edo zart egin ondoren, matxuraren diagnostikoa uste bezain ezkorra ez izateko ahaleginak, Zainketa Intentsiboko Unitatean ez sartzeko modukoa behintzat.

Bi digresio orain arte, gaiari heldu aurretik. Aski esanguratsuak, nik uste, biak, digresio izanik ere. Baina hirugarren bat botako dut: hiltzaile omen da tabakoa erretzea (bizitza delarik, ordea, hilkortasunaren baldintzarik ezinbertzekoena); ba, hemen nauzue erretzeari



Bixente Serrano Izko

GEROA BAI-KO KIDEA

@Bixentesi

Hainbertze dira ene neuronen itsasoan sartzen diren giltzak, dagozkigun eremuetako ateetakoak, non haur-abestia dabilkidan buruan urpekari: "Non daude giltzak?"

emanda, oraintxe burura datorkidan ideia bakoitza nola edo hala biribildu eta hurrengoarekin logika sentiberegiarekin ez lotzeko ahaleginetan, kezko eraztunak gora bota eta bota. Tabakoa-rena, hauteskunde kontuak bezala gehien-gehienetan, hil ala biziko kontua ez delakoan.

Hainbertze dira ene neuronen itsasoan sartzen diren giltzak, dagozkigun eremuetako ateetakoak, non haur-abestia dabilkidan buruan urpekari: "Non daude giltzak?"

Lehorreko lurralde dugu Nafarroa: eskuina, bagenekien, Monterrosoren dinosauroaren parekoa da; lau koalizioetako gobernuaren alde apustularietako batek, autogobernu eta euskaltzalearen arloetan ezezagun handiena duguna izan arren, jauzi handia egin du aurrera, bertze hiru kideen boto-emaelek dezentze xurgatuz; gaurko nafar gobernuaren uhalen gidariak, bertze bi bidaideek bezala, behera jo du, Senatuko ordezkotik lorturik dena dela, Aldaketaren aldeko guztiak lagun... Urpekari trebeak beharko ditugu giltzen bila, are trebeagoak geure urak lurpekoak direnez.

EAEn, Iglesias irabazle, ezker abertzale ofizialaren kontura hein handi batean: abertzale erradikal asko, antza, abertzale bainoago erradikalak ditugu, Estatu eremuko indarren arraste arrain-sarda, nolako itsaslasterrak dabilztan.

Estatu eremuan, bigarren itzuliaren irrikan Iglesias, baina itsasalde itzel luzeak ditu penintsulak, urpekariak giltzen bila luzaro entretenitzeko modukoak: areago, ate birakarien jabeek nekez botako dituzte giltzak itsasora. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.



Bizkaiko Foru
Aldundia
Deputación
Foral de Bizkaia

www.bizkaia.net

